



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

FERIXA NAGUSIKO JAIXAK 2024 KARTEL LEHIAKETA

OINARRIAK

- 1.** Artista afizionatu edo profesional orok har dezake parte.
- 2.** Lan guztiek originalak izan beharko dute.
- 3.** Lanak euskarri digitalean (jpg formatuan) aurkeztu behar dira derrigorrez.
- 4.** Artista bakoitzak nahi beste lan aurkeztu ahal izango du.
- 5.** Gaia librea da (koloreak eta konposaketa), dena den, kontuan hartu beharko da deialdiaren zergatia.
- 6.** Ezin da erabili irudi-eskubidea daukan elementurik.
- 7.** Pertsonen argazkiak erabili daitezke baldin eta hauen baimena aurkezten bada, edo tutoreena adin txikikoa bada.
- 8.** Ezin da argazki zaharrik erabili.
- 9.** Obra guztiek inskripzio hau eraman behar dute: "FERIXA NAGUSIKO JAIXAK 2024 ELGETA", berau baita deialdiaren gaia. Ferixa Nagusiko jaien data ere agertu behar da kartelean ekainaren 27tik 30era).

10. Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Lana formatu digitalean. Kartelaren lema edo izenburua jarriko da.
- Egilearen izena, bi abizen, NAN, helbidea eta telefono zenbakia.

Dokumentazioa aurkezteko tokia: Elgetako Udaleko arreta zerbitzuan (Mendizaleen plaza, 1).

- 11.** Sari bakarra izango da: 100 €, garbi.
- 12.** Kartelak aurkezteko azken eguna: maiatzak 24.
- 13.** Kartel irabazlearen hautaketa prozesua honako hau izango da: kartelak buztin gelan eskegiko dira eta herritarrek on-line botoa eman ahal



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

izango dute maiatzaren 27tik maiatzaren 31ra. Boto gehien jasotzen duen kartela izango da irabazlea.

- 14.** Kartel irabazlea zein izan den ekainaren 1ean emango da jakitera.
- 15.** Ez da saririk emango epaimahaiak horrela irizten badio. Epaimahaiaren erabakia apelaezina da.
- 16.** Obra saritua Udalaren esku geratuko da, eta Udalak lana erakutsi eta argitaratu egin dezake horrela irizten badio.

Elgetan, 2024ko maiatzaren 14an



ELGETAKO UDALA

(GIPUZKOA)

FERIXA NAGUSIKO JAIXAK 2024 KARTEL LEHIAKETA

Aurkezteko epea: maiatzaren 14tik 24ra bitartean

Saria: 100€

Obra guztiek inskripzio hau eraman behar dute: “FERIXA NAGUSIKO JAIXAK 2024 ELGETA”, berau baita deialdiaren gaia. Ferixa Nagusiko jaien data ere agertu behar da kartelean “ekainaren 27tik 30era”

Saritua aukeratzeko modua: buztin gelan erakutsiko dira lanak eta on-line bozkatu. Botu gehien jasotzen duena izango da irabazlea

Oinarriak: www.elgeta.eus webgunean

Elgetan, 2024ko maiatzaren 14an